

2014KO ZEMENDIAREN 27AN EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2014ko zemendiaren 27an, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AITOR APRAIZ IMATZ

Zinegotziak:

- PALOMA DE EPALZA GARCES DE LOS FAYOS
- ELSA MARÍA IMATZ BASARRATE
- LUIS FLORENCIO ZABALA SANTA ANA
- FELICIANO JAUREGUIZAR ORAINDI
- IKER MURUAGA GOIKOETXEA
- MIREN LUKE VERDES CEARRA
- ALBERTO BILBAO BELTRÁN DE GUEVARA
- GORKA RENTERIA GARAI
- AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA
- JON PELI HORMAECHE ASOLO

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren ohiko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deustela legeak agintzen dauanaren arabera.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate jaunaren lehendakaritzapean ondorengo gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

1.- 2014KO URRIAREN 30EAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2014ko urriaren 30eko ohiko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotzietz akta hori aho batez onartu dabe.

2.- 2014KO ZEMENDIAREN 10EAN EGINDAKO APARTEKO UDALBATZAREN AKTA IRAKURRI ETA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2014ko zemendiaren 10eko aparteko udalbatzaren akta, eta alkateak galdetu dau akta horretaz ea inork ezer esateko daukan, inork be ez dau ezer aitatu eta zinegotziek akta hori aho batez onartu dabe.

3.- ALKATETZAREN DEKRETUEN BARRI EMON.

Gai honeri hasikera emoteko, idazkariak ondorengo dekretuen barri emon dau; halanda be, zinegotziak dekretuen kopien jaube dira.

338/2014.- Lursail bat banantzeko udal baimena.

339/2014.- Kultur, kirol eta gizarte alkarteetako 2014ko ekintza programarako diru-laguntzak eskatzeko epea luzatzea.

340/2014.- Bainu-gela bat barrizteko udal lizentzia.

341/2014.- Buggien proba bat egiteko udal baimena .

342/2014.- Bainu-gela bat barrizteko udal lizentzia.

343/2014.- Gure Esku Dago ekimenaren aldeko karpa bat iminteko udal baimena.

344/2014.- SUR.3-Erretereria egoitzazko eremu urbanizagarriari buruzko urbanizateko jarduketa-programearen aldarazpena egiteko beharra Arkigest Estudioa S.L. enpreseari esleitzea.

345/2014.- Urriaren 23ko 237/2014 zk. epaiaren barri emotea.

346/2014.- Fatxada bateko barriztatze partziala egiteko

347/2014.- Promociones Gailur Alde, S.L enpresaren eskabidea ontzat ematea.

348/2014.- Izoziak saltzeko eremuen esleipena luzatzea.

349/2014.- Izoziak saltzeko eremuen esleipena luzatzea.

350/2014.- Alfredo Ortega Altunak José Antonio Aldecoa Luzarragaren izenean egindako alegazino batzuk ezestea.

351/2014.- Kredituak aldarazteko espedientea onestea.

352/2014.- Zarrakoa Bidea kaleko eta itsasertzeko pasealekuko berrikuntza obrei buruzko proiektua onartzea.

353/2014.- Bainu-gela bat barrizteko udal lizentzia.

354/2014.- Arriskutsuak izan daitekezan animaliak eukiteko lizentzia administratiboa emotea.

Aitor Apraiz alkateak ia nonork zeozer esateko daukan galdetu eta berehala, Felix Jauregizar zinegotziak, BILDU-BAKIO taldearen izenean, 344/2014 dekretuari buruz adierazo dau SUR.3 urbanizatzeko jarduketa-programaren aldarazpena Arkigest enpreseari esleitu jakola-eta horrelako beharrak beste enpresa batzuei be esleitu behar jakela, beti enpresa bateri emon beharrean.

4.- 2014KO UDAL AURREKONTUAREN 10. ALDARAZPEN ESPEDIENTEA ONARTU (KREDITU TRANSFERENTZIARI BURUZKOA), HALA BEHAR BALITZ.

Zinegotziek aldarazpen horren ganeko espedientearen barri daukiela kontuan hartuta, Aitor Apraiz alkateak, aldarazpenaren nondik norakoaren azalpen laburtua emon dau, ondokoa esanez: udal aurrekontuaren aldarazpena gastuen kreditu-transferentziaren bitartez egiten da; horrela bada, 121.131.00.04 (lansari osagarriak) aurrekontuaren gastu partidatik 5.414,00 euroei baja emon eta 434.623.00.02 aurrekontuaren gastu partidari gehitzen jakoz, hori guztiori zinegotziei emondako agirietan azaltzen dan modura. Izan be, eragiketa hori egiten da igerilekuko iragazkiak erosteko.

Segiduan, EAJ/PNV udal taldeko Aitor Apraiz, Floren Zabala, Gorka Renteria, Paloma Epalza, Iker Muruaga eta Elsa Imatz zinegotzien aldeko botoagaz, bertaratutako zinegotzi gehienak izanik, Udalaren Osoko Bilkurak, erabagi hau hartu da:

2014ko udal aurrekontuari jagokon 10. aldarazpen espedientea onartzea, kreditu transferentzia modalidadean.

Kredituak transferitzen diren gastu partidak (bajak)

Partida	Izendapena	Hasierako kreditua	Gutxitzea	Emaitzako kreditua
121.131.00.04	Lansari osagarriak	80.440,14 €	5.414,00	75.026,14 €
		80.440,14 €	5.414,00	75.026,14 €

Handitzen diren kredituen gastu partidak (altak)

Partida	Izendapena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Emaitzako kreditua
----------------	-------------------	---------------------------	-------------------	---------------------------

434.623.00.02	Instalazioak	0,00 €	5.414,00	5.414,00
		0,00 €	5.414,00	5.414,00

BILDU/BAKIO taldeko Felix Jauregizar, Amets Jauregizar, Alberto Bilbao, Miren Luke Verdes eta Jon Peli Hormaetxe zinegotziak, barriz, abstenidu egin dira.

5.- 2014KO UZTAILAREN 1ETIK IRAILAREN 30ERA ARTEKO EPEARI JAGOKON UDAL AURREKONTUAREN BETEARAZPEN EGOEREAREN BARRI EMON.

2014ko uztailaren 1etik irailaren 30era arteko epeari jagokon udal aurrekontuaren betearazpenari buruzko txostena zinegotziek daukien ezkerro, Aitor Apraiz alkateak bertan dakarrenaren ganeko azalpen laburra emon dau, ondorengo esanez: *bagilaren 30ean aurrekontu iraunkortasunaren eta gastu arauaren helburuak beteten dira, finantzazino gaitasuna 417.624,82 eurokoa da (doikuntza planean finantzazino gaitasuna 302.713,47 eurokoa da), aintzatetsitako eskubide garbien zenbatekoa 2.822.120.38 eurokoa da eta aintzatetsitako betebeharrak garbien zenbatekoa, barriz, 2.059.129,92 eurokoa.*

6.- BAKIOKO UDALAK ONARTUTAKO FAKTUREN ORDAINKETEN BETEARAZPENARI BURUZKO EGOERAREN BARRI EMON

Garagarrilaren 5eko 15/2010 Legearen 4. artikulua arabera, diruzainek edo kontuhartzaileek hiru hilabetetik hiruhilabetera txostena egin behar dabe, onartutako fakturen ordainketen betearazpenari buruzko egoerea zein dan azalduz, eta horren barri udalbatzari emon.

Hori dala eta, Idazkari-kontuhartzaileak 2014ko urriaren 30eko txostena egin dau udalbatzari jakinarazoteko, eta Aitor Apraiz alkateak horren edukia irakurri dau, agiri hori zinegotzi guztiek daukien arren. Izan be, txosten horren eguna erreferentzia modura hartuta datuak honek dira, beti be bertan ageri danaren arabera,:

	Zenbatekoa	Zenbakia
Ordaintzeko dauden egiaztagiriak edo fakturak	597.407,04 €	33
Epemuga gainditu duten edo eskatzeko modukoak diren egiaztagiriak edo	591.773,40 €	22

fakturak		
Herri administrazioen likidazioak	152.613,03 €	6
Guztira ordaindutako fakturak, 2014ko 3. hiruhilekoa	416.840,16 €	209
Jaso diren eta erregistratzeko dauden fakturak guztira erregistroko 3 hilabete gaindituta	0,00 €	0

Horreei buruzko datuak txosten horri erantsitako zerrendan ageri da.

Udalbatza horren guztiorren jakinaren ganean geratu da.

7.- KULTUR ETA KIROL TALDEEI DIRU-LAGUNTZINOAK EMOTEA ONARTU, HALA BEHAR BALITZ.

Aitor Apraiz alkateak adierazo dau:

Onartzeko ekarri dan proposamena aste udal talde biak honetako Informazino Batzordean adostutakoa da, hau da, alkarteei emon gura jakezan diru-laguntzen zenbatekoak alkatearen 2014ko zemendiaren 13ko erabagi proposamenean ageri diranak izango dira, zenbateko horreek batuz, guztira, 20.000,00 euro hain zuzen be; baina, azken kopuru horri %10ra gehituko jako (badira urte bi dirulaguntzen zenbatekoak %10 gitxitu zirala eta horrela jarraitu dau), alkarteen egiten daben beharra dala eta. Gehikuntza hori, hau da, 2.000,00 euro, alkarteen artean banatzeko asmoz.

Felix Jauregizar zinegotziak dino: informazino batzordean dirulaguntzen ordenantzea egokitu edo aldarazoteko konpromisoa hartzea be adostu zan, egokitzapen edo aldarazpen hori erabagi ostean, hurrengo udal legegintzaldian udal taldeen eta kirol eta kultur alkarteen artean hartutako erabagi hori aztertu eta horren arabera dirulaguntzak banatzeko.

Alkateak dinotso ordenantzea aldarazotea ondo dagoala, baina datozen udal hauteskundeon ondorioz sortutako korporazioaren zeregina izan beharko litzatekela.

Udalaren Osoko Bilkurak, zinegotzien aho batez, erabagi hau hartu dau:

a) 2014ko udal aurrekontuaren gastuen orriko 451/4810120 partidaren pentzura, ondorengo alkarteei dirulaguntza honeek emotea.

- 1.- Alaitasuna: 619 euro.
- 2.- Atxurre FST: 619 euro.
- 3.- Bakioko Abesbatza: 1.755 euro.
- 4.- Bakio Kirol Taldea: 8.550 euro.
- 5.- Bakio Surf Taldea: 619 euro.
- 6.- Bizilore: 619 euro.
- 7.- Gaueka Herri Kirol Taldea: 1.965 euro.
- 8.- Itxas-Alde: 2.250 euro.
- 9.- Marta Txori: 619 euro.
- 10.- Urkitza Ikastetxeko Guraso Alkartea: 2.385 euro.

b) 2014ko udal aurrekontuaren aldarazpena izapidetzea, beti be 451/4810120 aurrekontu partideari 2.000,00 euro gehitzeko, alkarteen artean hainbanatzeko asmoz.

c) Kultur eta kirol jardueretarako diru-laguntzen kontzesinoa arautzen dauen udal ordenantzea 2015. urtean aldarazoteko konpromisoa hartzea.

8.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

Amets Jauregizar zinegotziak, BILDU-BAKIO udal taldearen izenean, abenduaren 3an nazioartean euskeraren eguna dala-eta ondorengo adierazpena egin gura dauala adierazo dau:

Azken mende-laurden honetan Euskal Herrian abian jarri diren hizkuntza politiken eraginez eta herri ekimenari esker egingo diren urratsak ukaezinak badira ere, oraindik urrun aurkitzen gara euskaldunok nahi dugun normalizaziotik, hau da, erosotasunez geure bizitza euskaraz egunero egitetik. Gure hizkuntzaren normalizazio prozesuak une erabakigarriak bizi ditu azken bolada honetan, faktore batzuek moteltze kezkarria erakusten baitute. Horregatik, ezinbestekoa da orain arte eman ditugunak baino pauso sendoagoak ematea eta euskararen ezagutza eta erabilera gizarte-eremu guztietara hedatzeko neurri eraginkorrak hartzea. Hori ez egiteak euskarari dagozkion eremuak berreskuratzeko erritmoa moteldu ez ezik lortutakoak ahultzea eta arriskuan jartzea ekar lezake. Egoera hau gainditu egin behar da, gaur egungo baldintzek eragotzi egiten

baitute berez, zaila, luzea baina ezinbestekoa den euskararen normalizazioaren helburua lortzea.

Argi dugu normalizazioak eragingo duela euskaldunok euskeraz bizitzeko dugun eskubidea bermatua izatea. Aurretik bide luzea badugu ere, garrantzitsua iruditzen zaigu instituzio publiko guztietatik etenik gabe euskeraren aldeko lana egitea eta etengabe normalizazioa helburu izango dituen tresna eta baliabide desberdinak herritarron esku ipintzea.

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, ezta zerrendatik kanpo be, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate jaunak batzar hau 19:30ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkatea

Idazkaria